

**Euskal presoak gose greban**

# Presoen aldeko kontzentrazioak egingo dira gaur herrietan, Baterak antolatuta

*EHk eta AABek, besteak beste, mobilizazio horietan parte hartzeko deia egin dute*

Erredakzioa / Donostia

**Batera plataformak euskal presoen eskubideen alde antolatu dituen ekimenen barne, gaur kontzentrazioak egingo dira Euskal Herriko herrietan. Euskal presoak Euskal Herriratzeko aldarrikapenaren baitan mobilizazio ugari iragarri zituen Baterak joan den astean, eta gaurkoa izango da herrietan egingo den lehenengoa.**

BATERA Plataformak joan den asteburuan Gasteizen eginiko bileran finkatu zituen lanerako egutegia, dekalogoia eta batzorde iraunkorreko kideak. Jakina denez, plataforma horretako batzorde iraunkorrean daude EAJ, EA, EH, IU eta AB alderdiak, ELA eta LAB sindikatuak eta Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

Gasteizen eginiko bilera horretan hemendik urte bukaerara bitartean zenbait mobilizazio egiteko asmoa agertu zuten, batzuk herrialdekoak eta besteak herri mailakoak. Horrela, mobilizazio horietarik lehenengoa astelehenean izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean. Zenbait hautetsi eta alderdie-tako ordezkari izan ziren bertan; besteak beste, Roman Sodupe Gipuzkoako ahal-dun nagusia eta Joseba Egibar EAJko bozeramailea.

Gaurkoa, berriz, herrietan egiten den lehenengoa izango da. Baterak arratsaldeko 20:00etarako egin du deialdia, eta herri bakoitzaren esku utzi du tokia hautatzea, nahiz gehienetan udaletxeen aurrean izango den. Batera plataforma nazionalarekin batera herrietan ere gisa horretako plataformak sortzen hasiak dira jada. Esate baterako, Leioan (Bizkaia), aste honetan bertan egin du herriko Batera taldeak lehen bilera, eta gaurko kontzentrazioa da antolatu duten lehen ekimena. Bulebarrean izango da 20:00etan.

Bestetik, zenbait taldek beren atxikimendua agertu eta gaurko kontzentrazioetan parte hartzeko deia egin dute, AABek eta EHk adibidez. EHk dioenez, presoen esku-



JOXE LACALLE

**EH, PSNko egoitzaren aurrean.** Nafarroako Parlamentuan gose greban dauden EHko parlamentarioak PSNko egoitzaren aurrean bildu ziren atzo, talde horrek bake prozesuan duen «jarrera tamalgarrria» salatzeko. Arratsaldean hainbat herri erakunderekin bildu ziren parlamentarioak, eta gaur sindikatuarekin eta gizarte erakundeekin bilerak egiten jarraituko dute. Protestaldia bihar amaituko dute.

bideen aldeko aldarrikapenak gizartearen inplikazioa lortu du, eta hori garaipena dela azaldu zuen. Hala ere, garaipen hori oraindik ez dela lortu nabarmendu zuen, Espainia eta Frantziak

borondaterik ez dutelako. Horrek gizartearen aldetik gogoeta eskatzen duela uste du EHk. Konpromisoa agertzeko urrats praktikoak egin behar direla azaldu zuen EHk.

AABen ustez ere, gaurko kontzentrazioek euskal gizartearen nahia zein den argi eta garbi uzten dute. AABak gus-tura agertu ziren Baterak presoen eskubideen aldeko aldarrikapena bere egin duelako.

## Protestak izan dira Bilbon eta Iruñean Olabarrieta eta Altable askatzearen alde

Erredakzioa / Iruñea  
MANIFESTAZIOAK izango dira gaur Bilbon eta Iruñean, Txema Olabarrieta eta Josu Altable euskal presoen egoera dela-eta presioa egin eta haien askatasuna erreibindikatzeko. Biek ala biek asteburu honetan amaituko dute Frantzian betetzen ari diren kartzela zigorra, eta, nahiz eta Espainiako justiziarekin zorrik ez izan, ziurrenik Espainiako polizia-aren esku utzi egingo dituzte. Bilbon 20:00etan aterako da protestaldi isila, Plaza Eliptikotik, eta Iruñeko Txantrea auzoan

19:30etan, Arriurdiñeta Plazatik.

Altablek herenegun hasi zuen egarri greba, eta atzo bertan sustengua erakusten ari diren taldeek mozioa aurkeztu zuten Iruñeko Udalean haren alde. Berria idazterakoan artean ez zen bozkatu, baina ustea baze-goen azkenean onartu egingo zela, PSNk mozioaren hainbat puntu onetsi baitzuen. Bitartean, aurrera jarraitzen zuen Txantreako Auzotegi elkartearen hainbat taldek daramaten itxialdiak. Protestaldiari 42 abokatu eta 15 udal idazkari ere atxi-

ki zitzaizkion, presoaren egoeraz euren kezka azaldu baitute, eta balizko entregaren zalantza juridikoak azpimarratu dituzte.

Bestalde, EAJ/EA, EH, ICV eta IUko Bilboko Udal Taldeek Txema Olabarrieta presoaren askatasunaren aldeko idazkia sinatu zuten atzo bertan. Horiek ez ezik, ESK, EGI eta Bilboko Alde Zaharreko hogeitahortak eta EHUko ikasle erakunde-ek ere bat egin dute Euskal Herrian bizitzeko eskubidearen aldeko manifestuarekin —astelehenean aurkeztu zen manifestu hori—.

### Preso gose grebalarien aldeko kontzentrazioak larunbatean Basauri eta Martutenen

Edorta Ibarzabal eta Daniel Ruiz Bilboko presoen auzokideek kontzentrazioak antolatu dituzte larunbaterako Basauri eta Martuteneko espetxeen aurrean, gose greban diren presoek elkartasuna azaldu asmoz. Ibarzabal eta Ruiz gose greban diren hogeitahortak bi dira. Presoek prozesu politikoan parte hartu behar dutela aldarrikatzeko ekimena 13:00etan hasiko da, Basauriko espetxearen aurrean —aurretik autobusa 12:00etan aterako da Bilboko udaletik—. Basauriko espetxearen aurrean kontzentrazioa egin ostean Martuteneko espetxera joango dira, eta kontzentrazioa egingo dute, 16:00etatik 17:00etara.

### Iruñeko presoak hainbat ekimen egiten ari dira

Gose greban diren 20 presoetatik bat, Sotero Etxandi hain zuzen, Iruñeko espetxean dago, eta bertan diren beste bost preso politikoek protesta dinamika batekin lagundu nahi izan dute. Hala, presoak Euskal Herriratzeko eta preso eta errefuxiatuek prozesu politikoan parte hartzeko eskatzen duten afixak jartzen dituzte espetxe barruan, eta txandakako 24 orduko baraualdia egiten dute. Ostiraletan, berriz, funtzionarioen egoitzaren aurrean kontzentrazioa egiten dute, eta mobilizazio horietan preso sozialek ere parte hartu dute. Azken horiek espetxetik irteko baimenak kenduko dizkietela esanez mehatxatu ditu zuzendaritzak.

### Gil presoaren aldeko kontzentrazioa deitu du Pasaia udalak

Patxi Gil preso pasaitarrak duela hiru urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak, eta, gainera, gose greban diren presoetako bat da. Egoera hori salatzeko Pasaia udalak kontzentrazioa deitu du igandearako, 12:30etan, «Patxi Gil etxera» lelopean. Kontzentrazio Pasaia Antxoko Zumardian izango da.